



Juan Cruz Paniagua
Colegio San Vicente de Paul (Irún)
1. Saria DBH (Surfbong)
Argazkiak: Sara Santos

“Ikasleek lan egiteko garaian azaldu duten interesa izan da onena”

Irungo San Vicente de Paul Ikastetxeko 14 ikaslek Kosmodisea 2007-2008 edizioan parte hartu dute, eta Juan Cruz Paniagua DBH kategorian lehen saria lortu duen taldearen arduraduna izan da.

Juan Cruzek, Kosmodisean parte hartzearen esperientzia, arlo guztietan, oso positiboa izan dela esan du, eta ekimen honen bidez “*ikasleen arteko bizikidetzaren aberatsagotza*” izan dela azpimarratu du. “*Talde-lanaren bidez*”, dio Juan Cruz Paniaguak, “*ikasleak konturatu dira gai direla taldeko lanaren zailtasunak gainditzeko eta emaitza egokiak izaten saiatu dira.*” Hori indartzeko, irakasleak esan duenez, neska-mutilak oso pozik daude ikasleen lanak kontuan hartu baitira eta saria jaso ez duten lanaren maila oso altua izan dela konturatu baitira. “*Garrantzitsuena ikasleek egindako lanaren bidez lortu duten esperientzia eta ikasitakoa izan da.*”

- Zure ustez, ikasleentzako zein balio positibo eskura daitezke Kosmodisean parte hartuz?
- *Kosmodisean parte hartuz ikasleek ikasi dute taldeko lanaren garrantzia, taldeko lanaren banaketa, denok garrantzitsuak garela, IKT erabilera egokiaren bidez lana erraz daitekeela emaitza hobekia lortuz.*

KOSMODISEA ZABALDU

- Zein da 2007-2008 Kosmodiseatik azpimarratuko zenukeen gauzarik onena? Zein alderdi hobetu beharko lirateke, zure ustez?

- *Lanak egiterakoan ikasleek adierazi duten interesa izan da gauzarik onena. Batez ere, azken proba egiteko irrikan zeuden eta oztopoak gainditzeko izan duten nahia azpimarratzekoa da. Kurasaaleko ekitaldia gustukoa izan dute; amaiara ezin hobea izan da ikasleen iritziz. Hobetu beharko liratekeen alderdiei buruz, Kurasaaleko ekitaldiaren berri egunkarietan ez agertzea eta ikasleek eta ikastetxeek egin duten lanen berri ez zabaltzea. Jendeak ez baitaki Kosmodisea zer den.*

Juan Cruzek, Kosmodisea proiektua aurrera ateratzen duten pertsoneri bere esker ona helarazi nahi izan die, eta Kosmodiseako hurrengo edizioan parte hartuko duela adierazi du; gainera, azken edizioan garrantzitsua iruditu zaien gauzetako bat, lehen edizioko proba bat kentzea izan da.

